



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko otsailaren 17a

28. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legea aldatzen duena. Unión del Pueblo Navarro, Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai, Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen eta atxiki gabeko Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu dute (2. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Ikerketa batzorde bat sortzea, Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzko ikerketa batzordearen osaera, antolaketa eta jardunari buruzko arauak (4. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 17an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro, Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai, Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu dute Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamena presako prozeduraz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina bukatuko baita eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2014ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legea aldatzen duena

Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen 75.1 artikulua ezar-tzen zuen Otik 2 urtera bitarteko adingabeen adopzio nazionalen lehentasuna izanen zutela seme-alabarik gabeko familia-unitateek. Irizpide horrek, praktikan, zerotik bi urtera bitarteko haurrak adoptatzea eragozten zien egoki deklaraturako hainbat familiari, seme-alabak zituztelako.

Lehentasan hori egokia ez zelakoan Nafarroako Parlamentuak foru lege proposamen bat aurkeztu zuen abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen zuena, seme-alabarik gabeko familia-unitateei lehentasuna kenduz Otik 2 urtera bitarteko haurren adopzio nazionalen.

Seme-alabarik gabeko familien lehentasunari eusteko behin-behineko araubide bat ezarri zen foru lege horren xedapen iragankorrean, ordurako adopzioarako legezko baldintza eta izapide guztiak –besteak beste, Nafarroako Foru Komunitateko organo eskudunak aitortutako egokitasun psikologikoa eta soziala izatea– beterik zituzten baina adopzioa eratzeko deiaren zain zeuden familien egoera errespetatze aldera.

Xedapen iragankor hori aplikatzean, ordea, testuaren interpretazio desberdinak egin dira, foru legea indarrean jartzerakoan adoptatzeko zerrendetan inskribatuta zeuden pertsonen lehentasun-hurrenkera kontserbatuko dutela adierazten baitu.

Beraz, seme-alabarik gabeko familiek Otik 2 urtera bitarteko haurrak adoptatzeko lehentasuna betiko izaten jarraitzearen aldeko interpretazioa

saihesteko, bidezkoa da xedapen iragankorren testua egokitzea, halako moduan non foru legea indarrean jarri zenerako jada Nafarroako Adopzioen Erregistroan inskribaturik zeuden eta Nafarroako Foru Komunitateko organo eskudunak adopzioarako egokitasun psikologikoa eta soziala aitortua zien seme-alabarik gabeko familiek Otik 2 urtera bitarteko haurrak adoptatzeko lehentasuna mantenduko baitute gehenez ere bi urteko epean, martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legea onetsi zene-tik hasita.

Bi urteko epea amaitutakoan –edo lehenago, martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legea onetsi aurretik egokitzen baloratu ziren familia guztiei ordurako haur bat esleitzen bazaie edo adoptatzeko baldintza guztiak betetzeari uzten badiote–adopzio prozedura abiatzeko eskaera noiz aurkeztu den begiratu da eta eskaeren antzinatearen arabera erabakiko da Nafarroako Adopzioen Erregistroko zerrendako lehentasun-hurrenkerara.

Artikulu bakarra. Haurrentzako eta Nerabeen-tzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruz-

ko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 20ko 13/2013 Foru Legearen xedapen iragankor bakarra aldatzen da. Hona testu berria:

“Xedapen iragankor bakarra. Araubide iragan-korra:

Lege hau indarrean jarri aurretik Nafarroako Adopzioen Erregistroan inskribatu diren eta Nafarroako Foru Komunitateko organo eskudunak adopzioarako egokitasun psikologikoa eta soziala aitortu dien seme-alabarik gabeko familiek zerotik bi urtera bitarteko haurrak adoptatzeko lehentasu-nari eutsiko diote bi urteko epean, foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita”

Epe hori amaitzen denean, edo familia horietako bati adingabeen adopzioarako eskaintzaren espediente artxibatzen bazaio indarra duen anto-lamenduan aurreikusitako arrazoiengatik, Nafarro-ako Adopzioen Erregistroan eskaintza inskribatu den egunaren arabera zehaztuko da lehentasun-hurrenkerara.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Ikerketa batzorde bat sortzea, Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko otsailaren 13an eginiko Osoko Bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzko ikerketa batzorde bat sortzea, ondoko gai hauek ikertuko dituen:

1. Nafarroako kontuen egoera, 2011tik izan duten bilakaera eta defizit-helburua betetzeko politikak aplikatzearekin duen lotura.

2. Nafarroako Gobernuak lehendakariak eman dako jarraibideak, BEZaren itzulketak gerortzekoak, hartara legez ezarritako epeak urratuz; eta jarraibide horiek Nafarroako ekonomian izan dituzten ondorioak.

3. Foru Ogasunaren zuzendari kudeatzaile ohiak egindako akusazioak, Ekonomia, Ogasun,

Industria eta Enpleguko kontseilariak Foru Ogasunaren independentziaren aurka etengabe esku sartzeari –saialdi mailan– buruzkoak.

4. Foru Ogasunaren zuzendari kudeatzaile ohiak egindako akusazioak, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak eta Nafarroako Gobernuak lehendakariak legezko babesaren duen informazio pertsonala eskatu izanari buruzkoak.

Erabaki hau argitara dadin agintzen da, Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2014ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzko ikerketa batzordearen osaera, antolaketa eta jardunari buruzko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 17an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko otsailaren 13an eginiko Osoko Bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzko ikerketa batzorde bat eratzea.

Hori dela eta, Erregelamenduko 62. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutakoari jarraikiz, bidezkoa da onestea batzorde horren osaera, antolaketa eta jardunari buruzko arauak.

Hori horrela, Eledunen Batzarrak hala erabaki ondoren, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzko ikerketa batzordearen osaera, antolaketa eta jardunari buruzko arauak onestea.

2. Erabaki hau parlamentu-taldeetako bozemaileei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Foru Ogasunaren egoerari buruzko ikerketa batzordearen osaera, antolaketa eta jardunari buruzko arauak

Lehena. Ikerketa batzordea eta haren jarduketak Legebiltzarreko Erregelamenduko 62. artikuluan eta harekin lotutakoetan ezarritakoari egokitu-ko zaizkio.

Bigarrena. Batzordearen xedea izanen da Nafarroako Foru Ogasunaren egoera ikertzea eta, berariaz, arlo hauek aztertuko ditu:

"1. Nafarroako kontuen egoera, 2011tik izan duten bilakaera eta defizit-helburua betetzeko politikak aplikatzearekin duen lotura.

2. Nafarroako Gobernuko lehendakariak emandako jarraibideak, BEZaren itzulketak geroratzekoak, hartara legez ezarritako epeak urratuz; eta jarraibide horiek Nafarroako ekonomian izan dituzten ondorioak.

3. Foru Ogasunaren zuzendari kudeatzaile ohiak egindako akusazioak, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak Foru Ogasunaren independentziaren aurka etengabe esku sartzeari –saialdi mailan– buruzkoak.

4. Foru Ogasunaren zuzendari kudeatzaile ohiak egindako akusazioak, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak eta Nafarroako Gobernuko lehendakariak legezko babesa duen informazio pertsonala eskatu izanari buruzkoak".

Hirugarrena. Ikerketa batzordea parlamentu-talde bakoitzeko bi kidek osatuko dute, eta erabaki guztiak boto ponderatuaren sistemaren bitartez hartuko ditu, batzordeburuaren hautaketa barne. Eledun bakoitzak, bere taldea zenbat foru parlamentariak osatzen duten, horrenbeste boto edukiko ditu batzordean.

Batzordeko kide izanen da, baita ere, ikerketa batzordea sortzeko eskaria sinatu zuen atxiki gabeko foru parlamentaria. Atxiki gabeko beste parlamentariak botoa delegatzen badiu, kontuan hartuko da aurreko lerrokadan ezarritako boto ponderaturako.

Laugarrena. Parlamentu-taldeek 2014ko otsailaren 17ko 18:00ak baino lehen jakinarazi beharko diote Legebiltzarreko lehendakariari nor aukeratu duten batzordeko kide izateko.

Bosgarrena. Ikerketa batzordea 2014ko otsailaren 18an eratuko da, 10:00etan. Eratzeko bilkuran Parlamentuko lehendakaria izanen da buru.

Seigarrena. Batzordea eratzeko bilkuran batzordeburua hautatuko da; hura ez badago, parlamentu-talde bereko batzordekide den beste foru parlamentaria arituko da haren ordeiz. Batzordeari laguntzen dion legelaria izanen da batzordeko idazkari.

Zazpigarrena. Ikerketa batzordeak 2014ko otsailaren 28a baino lehen amaitu beharko ditu bere lanak, eta egun horretan onetsita egon beharko dute iristen dituen ondorioztapenek. Legebiltzarreko Mahaiak, Eledunen Batzarrak hala erabaki ondoren, epe hori luzatu ahalko du, Batzordeak eskatzen badu.

Zortzigarrena. Batzordeak egiten dituen informazio- eta dokumentazio- eskaerak ase behar dira haiek jaso eta berrogeita zortzi orduko epean. Informazioa edo dokumentazioa batzordeko lehendakariari helarazi behar zaio zuzenean, eta horrek batzordekide diren foru parlamentariari berehala emanen die.

Bederatzigarrena. 1. Batzordera agertzeko eskariak zitazio fede-emaile bidez egiten ditu Parlamentuko lehendakariak, agerraldia baino hiru egun lehenago, gutxienez. Zitazio horretan hauxe jaso beharko da:

a) Batzordeak zein egunetan hartu zuen kasuko pertsonaren agerraldia eskatzeko erabakia.

b) Agerraldira deitutakoaren izen-abizenak.

c) Agerraldiaren tokia, eguna eta ordua.

d) Ohartarazpena, adierazteko ezen, agertzen ez bada, Zigor Kodearen 502.1 artikuluan jasotako desobeditze-delitua egiten duela.

e) Agerraldian hizpide izanen dituen gaiak.

f) Espresuki aipatuko da Konstituzioak aitortzen dituen eskubideak errespetatuko direla; bereziki, pertsonen intimitate eta ohorerako eskubidea, sekretu profesionala eta kontzientzia klausula.

g) Agerraldia hedabideei irekia izanen delako ohartarazpena. Halere, agerraldira deitutakoak batzordeari eskatzen ahalko dio bilkura isilpekoa izan dadila, horretarako arrazoiak azalduz.

2. Agertzeko eskaria funtzionario publiko bati egiten zaionean, zitazioaren kopia hierarkian haren gainean dagoenari igorriko zaio, jakinarazpen-ondorio hutsetarako.

3. Agerraldira deitutakoak berari laguntzeko izendatzen duen pertsonarekin egin ahalko du agerraldia.

4. Agerraldira deitutakoak batzordean adierazpenak egin aurretik, batzordeburuak hura oharta-

raziko du Parlamentuko ikerketa batzorde baterako deialdia jaso eta lekukotza faltsua ematen duenarentzat Zigor Kodearen 502.3 artikulua ezarritakoaz.

5. Agerraldira joan behar duenari horren ondorioz sortutako gastuak ordaindu egingen zaizkio, behar bezala justifikatu ondoren, Nafarroako Parlamentuko aurrekontuaren kargura.

Hamargarrena. Ikerketa batzordearen lanek lehentasuna izanen dute Legebiltzarraren gainontzeko jardueren aldean.

Hamaikagarrena. Ikerketa batzordearen irizpean bilduko dira iritsitako ondorioztapenak. Baldin eta boto partikularrik badago, irizpenari gehitu eta, horrekin batera, Legebiltzarraren Osoko Bilkurari igorriko zaio, eztabaidatu eta bozkatzeko.

